



EMAITZAK

2025EKO LEHEN HIRUHILEKOA

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUEKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzaizkete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daitezke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

- 1/ 2025eko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK
- 2/ FINANTZA INFORMAZIOA
- 3/ AURREIKUSPENAK
- 4/ ERANSKINAK

1/ 2025eko 1HHko DATU AIPAGARRIENAK

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

URTEAREN HASIERA POSITIBOA, AURREIKUSPENEKIN BAT DATORRENA

Kontratazioa

2.026 M€
+% 356
 vs 2024ko 1HH

Eskari zorroa

15.603 M€
+% 6
 vs 2024/12/31

Salmentak

1.118 M€
+% 11
 vs 2024ko 1HH

EBIT

57 M€
+% 21
 vs 2024ko 1HH

EBIT mj

% 5,1
ehuneko +0,4 puntu
 vs 2024ko 1HH

Emitza garbi egozgarria

36 M€
+% 53
 vs 2024ko 1HH

Jasangarritasuna

Jasangarritasuneko gida-plana
 martxan jartzea

/ Kontratazio bikaina urtearen hasieran

/ Errekor berria eskarien zorroan

/ Salmenta bateratuak bi digituraino igo dira bi negozioek izandako hedapenari esker

/ Emitzek goranzko joera dute eta errentagarritasunean ere aurrera egin da

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

CAF-EN ESPOSIZIO TXIKIA
ESTATU BATUEKIKO

/ Muga-zeren inguruneak ez du aldaketarik izan 2026ko Plan Estrategikoaren ikuspegian

Zorroak eta hornikuntzek AEBkiko esposizio txikia dute¹

Zorroaren % 6 ingurukoa

Zuzeneko erosketen <% 1
AEBkoak ez diren proiektuetan



Kontratuak babesteko mekanismoak

Historikoki, AEBk *“Buy American Act”* delakoa aplikatzea eskatu izan du funts federalekin finantzaturako proiektu guztietan. Hori dela eta, **bertako edukierak, gutxienez, % 70ekoa izan behar du.**

1998tik, CAFek **Elmirako (NY) ezarpen industrialaren** bidez eta hornikuntza-katearen zati bat AEBn lokalizatuz bete izan du eskakizun hori.

Zorroko kontratuetan, *“change in law”* motako kontratu-babeserako mekanismoak daude.

Truke-tasaren (EUR/USD) estaldura abian dauden proiektuetan.

CAFek 2026ko Plan Estrategikoaren ikuspegia berretsi eta AEB *core market* gisa mantendu du

2026ko Plan Estrategikoan ezarrita dagoenaren arabera, CAFek herrialde hartan **bere helburuei eutsi die toki mailako ezarpen industrialeko estrategiarekin.**

Autobusen segmentuan, CAFek aurrera egin du produkzioa lokalizatzeko erabakiaren aurreko **babestutako esportazioko egungo estrategian.**



¹Datuak 2024/12/31n.

1.2 MUGARRI NAGUSIAK

SOLARISEK LEHEN KONTRATUA ESKURATU DU KANADAN, 2026KO PLAN ESTRATEGIAREN ARABERA HELBURU DEN MERKATUAN

/ Solarisek bolumen handiko kontratua sinatu du Vancouver hirian trolebusak hornitzeko

Oinarri-kontratuaren balioa **120M €** ingurukoa da eta balio horren **4x** inguruko aukera exekutagarriak jasotzen ditu

Oinarri-kontratua 107 trolebus hornitzeko.

12 m-ko gehienez 201 unitate eta 18 m-ko beste 204 unitate arte eskuratzeko aukera exekutagarriak ditu bezeroak.

Arrakasta komertziala trolebus soluzioan (baita Europatik kanpo ere)

Trolebusen lehen salmenta Europa kontinentetik kanpo. Europaren kasuan, Solaris **lider eztaba daezina da eta >% 70eko merkatu-kuota** du.

Indarrean dagoen Plan Estrategikoarekin lerrokatuta

Lehen unitateak 2026ko bigarren sei hilekoan entregatuko zaizkio Ipar Amerikari.


Aukera potentzialak abian.



1.3 KONTRATAZIOA

KONTRATAZIO BIKAINA URTEAREN HASIERAN BI SEGMENTUETAN PROIEKTU ESANGURATSUAK BAIEZTATU OSTEAN

GUZTIRA (M€)




Trenak	274	1.510
Autobusak	170	516


- **Pipelineko aukera komertzialek maximo historikotan jarraitzen dute.**

Horien artean, nabarmendu beharrekoa da Belgikako SNCB operadoreari *intercity* trenak hornitzeko proiektua. Hain zuzen ere, gaur egun, prozesu hori **CAF preferred bidder** gisa hautatzeko erabakiaren inguruan bezeroak eman beharreko informazio osagarria jasotzeko zain dago.

KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



/ Bolumen handiko kontratuak lortu dira **ikuspegi komertzial hautakorrekin** autobus eta tresnak hornitzeko eta mantentze-lanetako zerbitzuak emateko.

/ **Btb=1,8** Talde osoan, 2025eko 1HHan.
 Btb=1,7 trenen segmentuan
 Btb=2,1 autobusen segmentuan

/ 2025eko 1HHko trenen kontratazioan honako hauek daude sartuta (besteak beste):

- Tren-ibilgailuak Marokon, Frantzian eta Espainian
- Mantentze-lanetako zerbitzuak hainbat geografiatan, non Erresuma Batua nabarmendu behar den bereziki.
- Seinaleztapen-sistemak.

/ **Autobusen kaptazio handia** hiruhilekoan (679 unitate eta **zero isuriko autobusen proportzioa handia** (% 83) izan da.

/ Geografiaren arabera banaketari dagokionez, **Europak biltzen du oraindik ere** kontratazioaren **zatirik handiena**.

1.3 KONTRATAZIOA

KONTRATAZIO BIKAINA URTEAREN HASIERAN BI SEGMENTUETAN PROIEKTU ESANGURATSUAK BAIEZTATU OSTEAN

/ 2025eko 1HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak



INTERCITY TRENAK
ONCF-RENTZAT (MAROKO)

- CAFen lehen kontratua Marokon.
- ONCFrekin (Office National des Chemins de Fer), Marokoko trenbide-sareko operadore nazionalarekin, sinatutako akordioa.
- 30 Intercity tren.
- **Akordioak kontratuaren irismena handitzeko aukera jasotzen du, beste 10 unitate entregatuta.**
- Mantentze-lanetarako laguntza teknikoko **zerbitzua** eta parkeko piezen hornikuntza jasotzen dituen **kontratua egiteko aukera.**
- **Proiektua** Espainiako Gobernuaren **FIEM** (Enpresa Nazioartekotzeko Funtza) **funtsen bidez finantzatu** da.




MANTENTZE LANEN ZERBITZUAK
NORTHERN-EKO FLOTARAKO
(ERRESUMA BATUA)

- Kontratua sinatu da Northern Trains Limitedekin, Erresuma Batuko Northern frankiziaren enpresa operadorearekin.
- **10 urtez** mantentze-zerbitzuak emateko akordioa (CAFek eman beharreko euskarri tekniko integrala jasotzen du, hasierako zuzenketako mantentzea, ordeko piezen hornikuntza eta ekipo nagusien berrikusketa handiak barne).
- Northernek **CAFen jarritako konfiantza berritu** du.



TRANBIAK
TOURSENTZAT (FRANTZIA)

- Syndicat des Mobilités de Tourainerekin sinatutako akordioa.
- Akordioak 19 URBOS tranbia eta parkeko piezak eta erreminta bereziak hornitzea jasotzen du.



TROLEBUSAK
TRANSLINKENTZAT
(VANCOUVER, KANADA)

- **Solarisen lehen kontratua Kanadan.**
- Kontratua TransLinkekin, Vancouverreko metropoli eremuko eskualdeko garraio-sareaz arduratzen den enpresarekin, sinatu du.
- 12 m-ko 107 troleibusen hornikuntza.
- Gainera, kontratuak **irismen hori handitzeko aukera** jasotzen du: 12 m-ko 201 unitate arte, eta 18 m-ko beste 204 unitate artikulatu arte.
- Lehen entregak 2026ko 2. seihilekoan eta 2027an jarraituko dute.



AUTOBUS ELEKTRIKOAK
STOCKHOLMERAKO (SUEDIA)
ETA POZNANERAKO (POLONIA)


- Solaris Urbino 15 LE modeloko 170 autobus elektrikoren hornidura Stockholm hiriari 2 kontraturen bidez:
 - 89 autobus elektriko Suediako Nobina Sverige AB operadorearentzat (**bezero ezaguna da Solarisentzat**).
 - 81 autobus elektriko VR Sverige AB operadorearentzat.
- 18 metroko 17 Urbino autobus elektriko artikulatuak hornituko zaizkio Poznan hiriari Poloniako MPK Poznan operadorearekin sinatutako kontratuaren bidez.

1.4 ESKARIEN ZORROA

ERREKOR BERRIA ESKARIEN ZORROAN, LEHEN ALDIZ ETA AISE, 15.000M €-KO MUGA GAINDITU DELARIK

GUZTIRA (M€)

Autobusak
Trenak



Zorroa / Salmentak ratioa ¹	3,5x	3,7x
Autobusak	1,6x	1,9x
Trenak	4,0x	4,2x

/ Eskari-zorroaren % 6ko gorakada kontratazio handiari esker.

/ Zorro horretan ez dago jasota zorroko kontratuei lotuta dauden eta bezeroek gauza ditzaketen etorkizuneko aukeren bolumen handia (7.000M €) inguru.

¹ Ratioa 2025/03/31n, 2024an izandako salmenten arabera kalkulatuta.

2/ FINANTZA INFORMAZIOA

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

BILAKAERA POSITIBOA EMAITZEN KONTUKO KONTU-SAIL GUZTIETAN

/ EBITa % 21 igo da eta, urteko lehen hiruhilekoan, 57M €-ra iritsi da

(milioi eurotan)	2024ko 1HH	2025eko 1HH	Ald. 2025eko 1HH/2024ko 1HH
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	1.008	1.118	+% 11
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	47	57	+% 21
EBIT Marjinaren %	% 4,7	% 5,1	
Finantza arloko emaitza	(11)	(7)	-% 38
Finantza-sarrerak	6	6	-% 1
Finantza-gastuak	(17)	(13)	-% 22
Trukeko edo kanbioko aldeak	1	1	
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(1)	(0)	
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	1,0	3,3	% 234
ZERGEN AURREKO EMAITZA	37	54	+% 45
Irabazien gaineko zerga	(12)	(16)	+% 32
Zergen ondorengo emaitza garbia	25	38	+% 52
Interes minoritarioak	1,2	1,6	+% 34
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	23	36	+% 53 ¹

/ Aurreikuspenekin bat datorren bilakaera operatiboa eta finantzarioa.

/ Bi digituko (+% 11) hazkundera salmentetan hiruhilekoan.

/ Ustiapen-emaitza salmenten gainera (+% 21) igo da eta errentagarritasunean urtetik urterako gorakada eragin du.

/ Finantza-emaitzak aldeko bilakaera izan du batez ere interes-tasen jaitsiera dela eta.

/ Hiruhilekoko zerga-tasa eraginkorra gutxitu da.


/ Aurreko horren ondorioz, **sozietateari egotzitako emaitza garbia 36M €-koa izan da lehen hiruhilekoan**; hau da, aurreko urtekoa baino **% 53 handiagoa**.

¹ Urte arteko aldakuntza, zifra absolutu zehatzak kontuan hartuta, biribildu gabe.

SALMENTA BATERATUAK BI DIGITURAINO IGO DIRA BI NEGOZIOEK IZANDAKO HEDAPENARI ESKER

Zorro handiari esker, hazkundearen joerak aurrera jarraituko duela berma daiteke


BATERATUA



TREN ARLOA



AUTOBUSAK





2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

EMAITZEK GORANZKO JOERA IZAN DUTE ETA ERRENTAGARRITASUNAK ERE AURRERA EGIN DU. URTEAN ZEHAR PIXKANAKA HOBETZEKO AURREIKUSPENA DAGO

EMAITZA

EBITa (M€) eta EBIT marjina (%)

INTERES MINORITARIOEN OSTEKO EMAITZA GARBIA (M€)



/ Taldearen EBITak % 21 egin du gora; aldiz, emaitza garbiak % 53ko gorakada izan du.

/ Segmentuka, autobusen negozioak EBITean ekarpen txikiagoa izan du 2025eko 1HHan planean aurrez ikusita zegoen moduan urteko entregen egutegia dela eta. Izan ere, egutegiak bolumen handiagoa aurrez ikusten du 2025eko bigarren erdian. Hori dela eta, **Solarisen errentagarritasun-profila gorakorra izango da urtean zehar.**


Trenen segmentuak ere bilakaera gorakorra izango du, baina zertxobait aldakorra ekitaldian zehar exekuzioko mixa dela eta.

3/ AURREIKUSPENAK

3. AURREIKUSPENAK

2025A HAZKUNDEA, ERRENTAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZA ETA FINANTZA ARLOKO INDARGUNEA OINARRI IZANGO DITUEN URTEA IZANGO DELA AURREZ IKUSI DUGU

/ Testuingurua ezegonkorra den arren, CAFek 2025erako aurreikuspenei eusten die



¹ Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

4/ ERANSKINAK

4.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

/ 2025eko urtarrila-martxoa aldian iragarri eta eskaeren zorroan sartu diren kontratuak

DATA	PROIEKTUA	HERRIAL DEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA (Etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira)
2025eko 1HH	Intercity ONCF	Maroko	Trenak / Tren-ibilgailuak	30 Intercity trenen hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	600M € inguru
2025eko 1HH	Tours	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	19 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	-
2025eko 1HH	TransLink Vancouver	Kanada	Autobusak	107 trolebus hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai; 12 m-ko beste 201 unitate arte, eta 18 m-ko 204 unitate artikulatu arte	120M € inguru
2025eko 1HH	MPK Poznan	Polonia	Autobusak	17 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	< 20M€
2025eko 1HH	Nobina Sverige	Suedia	Autobusak	89 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 100M€
2025eko 1HH	VR Sverige AB	Suedia	Autobusak	81 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025eko 1HH	Northern	Erresuma Batua	Trenak / Zerbitzuak	10 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-

4.2 AGENDA

Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2025eko maiatzak 20**
Nice Conference Bernstein (Niza)
- **2025eko maiatzak 27**
ESG Conference Kepler Cheuvreux (Birtuala)
- **2025eko maiatzak 28**
Foro MedCap (Madril)
- **2025eko ekainak 12**
ODDO BHF Nextcap Forum (Birtuala)
- **2025eko irailak 10**
UBS Quo Vadis Industrials (Birtuala)
- **2025eko irailak 17**
Iberian Conference Caixabank-BPI (Madril)

Emitzen argitalpena

Akziodunen Batzar Orokorra

- **2025eko ekainak 14**
CAFeko Ohiko Batzar Orokorra
- **2025eko uztailak 28**
2025eko 1SHko emitzen argitalpena
- **2025eko azaroak 13**
2025eko 9. hilabeteko argitalpena



4.3 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kuxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2024ko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.cafmobility.com) dago irakurgai, 8. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



www.cafmobility.com



TRUST
IN MOTION